


EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA
BILBOKO IRAKASLE FAKULTATEA
GIZARTE HEZKUNTZAKO GRADUA
2013/2014

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

GIZARTE HEZITZAILEAREN
BILAKAERA PROFESIONALA AZKEN
HAMARKADETAN

EZGAITASUNA DUTEN PERTSONEN ONGIZATEAREN BILA:
IRAGANA AZTERTUZ, ETORKIZUNERAKO ERRONKAK
AURREIKUSIZ

EGILEA: OIER OZAETA LANDAJUELA 45752022-P

IRAKASLEA: KARMELE ARTETXE SANCHEZ

ENTREGATZE DATA: 2014ko Irailaren 4a

AURKIBIDEA

1. Sarrera.....	4
2. Justifikazioa eta helburuak.....	5
3. Metodologia eta informazio iturriak.....	7
4. Egoeraren analisia eta irakurketa teorikoa.....	8
4.1 Gizarte hezitzaile titulazioaren historia.....	8
4.2 Dokumentu profesionalizatzaileen garrantzia.....	11
4.3 Gizarte hezitzailearen papera ezgaitasuna duten pertsonen esku- hartzean.....	14
4.4 Gizarte hezitzaileen erronka ezgaitasunean.....	18
5. Gizarte Hezitzaileen beharrak	22
6. Ondorioak.....	28
7. Bibliografia.....	29
Eranskinak.....	30
1. Eranskina: Emilio Arizagari elkarrizketa.....	31
2. Eranskina: Laura Velascori elkarrizketa.....	41
3. Eranskina: Jose Felix Renteriri elkarrizketa.....	49
4. Eranskina: Iñaki Rodriguezi elkarrizketa.....	64
5. Eranskina: Israel Alonsori elkarrizketa.....	71

GIZARTE HEZITZAILEAREN BILAKAERA PROFESIONALA AZKEN HAMARKADETAN

**EZGAITASUNA DUTEN PERTSONEN ONGIZATEAREN BILA. IRAGANA
AZTERTUZ, ETORKIZUNEKO ERRONKAK AURREIKUSIZ**

ABSTRACT

Ikerketa honek, Gizarte Hezkuntzaren garrantzia nabarmentzeko helburua izanik, profesio honen eta ezgaitasuna duten pertsonen eboluzio historikoa aztertzen du. Horretarako, aspalditik Gizarte Hezitzaileak diren pertsonen testigantzak bildu (lehengo eta gaur egungo egoera konparatzeko asmoz) eta Gizarte Hezitzaileen profesionalizazioa lortzeko jarraitutako ibilbidea ikertu da. Horrez gain, Gizarte Hezitzaileen Euskadiko Elkargoaren nondik norakoak aztertu eta sortutako dokumentu profesionalizatzaileak landu dira. Halaber, honekin, Hezitzaileen etorkizuneko erronkak plazaratzeaz gain, egungo egoera ikertu eta, mobilizazioaren bitartez, gizartearen kontzientziak lortu behar dela ondorioztatu da, lanbideak merezi duen errekonozimendua lortzeko asmoarekin.

Profesionalizazioa, Ezgaitasuna, Gizarte Hezitzailea, Formazioa, Gizartea

Este estudio, además de subrayar la importancia de la Educación Social, tiene como objetivo analizar la evolución histórica de la profesión y de las personas con discapacidad. Para ello, se han recogido testimonios de Educadores Sociales con experiencia (con motivo de comparar la situación anterior y la actual) y se ha investigado el recorrido seguido para lograr la profesionalización de los Educadores Sociales. Así mismo, los pormenores de la Asociación de Educadores Sociales de Euskadi han sido examinados además de los documentos profesionalizadores. Con todo ello, se ha llegado a la conclusión de que además de hacer públicos los desafíos futuros, hay que analizar la situación actual y, a través de la movilización, lograr la concienciación de la sociedad, con el objetivo de lograr el reconocimiento que la profesión merece.

Profesionalización, Discapacidad, Educación Social, Formación, Sociedad

This research, whose aim is to highlight the relevance of Social Education, analyses the historical evolution of this profession and people with disabilities. To this effect, testimonies of experienced Social Educators have been collected (in order to make a comparison between the previous and the current situation) and the way for achieving the professionalization of Social Educators has been studied. Besides, the role of the Basque Association of Social Educators has been examined as well as the professionalizing documents that are made. With this study, apart from revealing the future challenges of Social Educators, it is concluded that the current situation has to be studied and, that through mobilization, the social awareness needs to be increased in order to get the recognition that this profession deserves.

Professionalization, Disabilities, Social Educators, Formation, Society.

1. SARRERA

Historia betidanik gustatu zait. Aspalditik daukat jakintza-arlo honekiko interesa, nire ustez, gaur egungo gizartea, prozesu historikoen emaitza baita. Beraz, gaur egungo egoerak ulertzen lagun diezagukeen tresna dela esango nuke. Horregatik, gure etorkizuneko lanbideak esparru honetan bizi izandako prozesu historikoa aztertzea, hasierako momentutik, interesgarria iruditu zait eta, are gehiago, ezgaitasuna duten pertsonetikiko ikuspegiaren eboluzioa landuz.

Dakigunez, gauza guztiek aldaketak pairatzen dituzte eta historian zehar, ezintasuna duten pertsonak, tratu txarrak jaso izan dituzte eta ondorioz, baztertuak egon dira. Baieztapen hau argudiatzeko, Down Sindromea daukan adineko pertsona baten kasua aztertu eta bere bizitza kontatzen duen bideo bat sortu dut. Ikus-entzunezko honen bitartez, aurreko hamarkadetan egon den ezgaitasunarekiko ikuspegia aztertzeaz gain, kasu erreal bat ezagutu eta aldi berean, gizarteren sentsibilizazioa lortzea bilatu dut. Era berean, garai hartan lan egin zuten profesionalen testigantzak bildu ditut, nahiz eta gizarte hezitzaileak ez izan (graduatuak), profesional hauen konpetentzia guztiak eduki eta erabiltzaileen bizitza hobetzeko helburuarekin, beraiekin lan egin izan duten pertsonak, betidanik egon baitira. Hortaz, lan honen bitartez, prozesu honen garapena ezagutzea bilatzen dut, testigantzetan oinarrituz eta historiari so eginez.

Lanaren egiturari dagokionez, lehenengo, guztia justifikatuko duen atal bat sortu dut; honetan, lanaren garrantzia, helburuak eta ekarpenak argituz. Jarraitzeko, erabilitako metodologia azaltzen duen atal bat sortu dut, egoeraren analisisa eta irakurketa teorikoa egiteko erabili ditudan tresnak ezagutzeko asmoz. Honetan, Gizarte Hezitzaile titulazioaren eboluzioa (maila baxuko lanetik, unibertsitateko titulaziora), dokumentu profesionalizatzaileen garrantzia (lanetik profesiora), historian zehar ezgaitasuna duten pertsonak jasotako esku-hartze mota desberdinak (historiari begirada) eta Gizarte Hezitzaileen garrantzia bildu ditut. Horrez gain, gaur egungo Gizarte Hezitzaileen beharrak aztertuz, egungo egoera ulertu eta profesional hauek eskatzen dutena jaso dut. Era berean, bukatzeko, lan akademiko guztiaren ondorioak adierazi ditut, azken batean, edozein lanketa egin ostean, ezinbestekoa da aztertutako guztiaren inguruan hausnartu eta emaitza eta ondorioak ateratzea. Horrela, egindakoa aztertzeaz

gain, etorkizunerako baliagarriak izan daitezkeen ideiak lortzen dira, gure lanaren ikuspegi holistiko bat eskainiz.

2. HELBURUAK ETA JUSTIFIKAZIOA

Lan honen bitartez, Gizarte hezitzaileen garrantzia azpimarratzeaz gain, duela gutxi lortutako profesionalizazioaren nondik norakoak azaldu eta prozesuaren inguruan hausnartu nahi dugu. Lanbidea duela gutxi sortu bada ere, argi dago, zaurgarritasun egoeran egon diren pertsonekin lan egin duten profesionalak, betidanik egon direla. Hortaz, denborarekin emandako aldaketak aztertu eta testuinguru desberdinetan oinarrituz, gaur egungo egoera ulertzen saiatuko gara, egungo gizarteak duen Gizarte Hezitzaileen beharra nabarmenduz.

Kolektibo asko dira betidanik zaurgarritasun egoeran egon direnak (drogomenpekoak, gaixo mentalak, ezgaitasuna duten pertsonak ...); gizarteak markatutako irizpideetatik aldentzeagatik, gizartetik at geratu direnak, alegia. Lan honetan, kolektibo desberdinetan oinarritu gintezke baina, ezgaitasuna duten pertsonenganako daukadan interesak bultzatuta, kolektibo honen azterketa bat egitea erabaki dugu. Horrela, ezgaitasuna duten pertsonen bizi izan duten prozesua ikertu dugu, historian zehar bizitzako gertakizun desberdinak ezagutuz eta gizarte hezitzaile profesioaren garrantzia nabarmenduz. Hortaz, honen bitartez, ezgaitasunen bat duten pertsonen bizitzak hobetzeko xedearekin lan egin duten profesionalen bizipenak ezagutzeaz gain, gizartean, kolektibo honenganako egon diren ikuspegi desberdinak aztertzeko helburua dugu. Horrela, historiari so eginez, ezgaitasuna duten pertsonentzat bideratutako erakunde desberdinen sorkuntzak aztertu eta bertako langileak elkarrizketatu ditugu, testigantza errealetan oinarrituz, bizitako prozesu guztia ulertuz eta gaur egungo egoerara hurbilduz. Beraz, gehiegi luzatu gabe, hurrengoko taulan, lan honen helburuak argitu ditugu:

Helburu orokorrak	Helburu espezifikoak
Historian zehar ezgaitasuna duten pertonekin lan egin dutenen esperientziak ezagutzea	<ul style="list-style-type: none"> • Lehengo eta egungo Gizarte Hezitzaile profilaren (gaitasunak, formazioa ...) konparaketa egin • Kolektibo honekin lan egiteko erak ezagutu • Emandako aldaketen (ikuspegiak, helburuak ...) inguruan hausnartu
Gizarte Hezitzaile profesioaren beharra nabarmendu	<ul style="list-style-type: none"> • Historiako gertakariak aztertu eta profesional hauen beharra adierazi • Bizitako profesionalizazio prozesua ezagutu • Etorkizuneko erronkak aurreikusi
Gaur egungo Gizarte Hezitzaileen egoera aztertu	<ul style="list-style-type: none"> • Zerbitzu eta baliabide desberdinak ezagutu • Gizarte Hezitzaileen elkargoaren garrantzia aztertu • Gaur egun dituzten oztopo eta beharrak ezagutu

1.go taula: Lan akademikoaren helburu orokor eta espezifikoak.

Planteatutako helburuak lortzeko, aurretik aipatu bezala, baliabide desberdinetan oinarritu gara. Ezgaitasuna duten pertsonenganako ikuspuntuaren aldaketak aztertzeke, dokumentu historikoak abiapuntutzat hartuta, hauexek aztertu eta denborarekin eman diren ikuspegi aldaketak ezagutzeaz gain, gaur egun dauden erronkak aztertu ditugu. Era berean, historian zehar ezgaitasuna duten pertonekin lan egin dutenen esperientziak ezagutzeko, hauen testigantzak bildu eta elkarrizketen bitartez, lehengo eta oraingo profesional eta esku-hartzeen desberdintasunak islatu ditugu. Horrela, gertakarietan oinarrituta, gizarte hezitzaile profesionalaren profila aztertu dugu, hauen gaitasunak, baliabideak eta egoerak konparatuz.

Gizarte Hezkuntza gero eta ezagunagoa bada ere, oraindik, pertsona asko eta asko dira honen gaineko informaziorik ez daukatenak edota beste profesio batzuekin nahasten dutenak. Euskal Herriko Unibertsitatetik, urtero, gutxi gora behera, 150 bat Gizarte Hezitzaile ateratzen dira baina, gainontzeko pertsonak, lanbide hau ezagutzen dute? Gizarteko beharretatik sortzen den lanbidea izanik, beharrezkoa da zerbitzu hauen

erabiltzaileez gain, gainontzeko pertsona guztiek ere ezagutu eta merezi duen errekonozimendua lortzea. Errentagarritasun ekonomikoa ematen ez duen lanbidea denez, zerbitzu hauek erabiltzeko beharra ez dutenek, alde batera uzten dute, profesioa era batean baliogabetuz. Hortaz, zaurgarritasun egoeran dauden pertsonen gain, ezinbestekoa da gainontzeko guztien sentsibilizazioa lantzea, kontzientziazioa piztea eta horrela, behar duen garrantzia lortzea. Beraz, lan akademiko honen bitartez, egungo egoera plazaratu eta egungo eta etorkizuneko Gizarte Hezitzaileen behar eta erronkak argitu nahi ditugu, errekonozimendu soziala sustatuz eta gizartearen ongizatea bilatzen duen zerbitzua dela nabarmenduz. Horrela, Gizarte Hezkuntza aztertzen duen lan akademiko hau plazaratuz, kontzientziazioa pizteko helburua dugu, gizartean dagoen hutsunea (lanbide ezezaguna izatea) betetzeko asmoz.

3. METODOLOGIA ETA INFORMAZIO ITURRIAK

Lan akademiko hau bideratzeko, lehenik eta behin, gaiaren inguruko informazioa bildu dugu. Horretarako, Dialnet bezalako plataformak eta liburutegiko informazioa erabiliz, Gizarte Hezitzaile titulazioaren eboluzioa eta historian zehar, ezgaitasuna duten pertsonen egoeraren bilakaera lantzen duten bibliografia akademikoa kontsultatu dugu. Bestalde, erakunde desberdinetara joz, Gizarte Hezitzaile gisa lan egin duten pertsonen lekukotzak bildu eta bizitako prozesua azalduko duten testigantzetan oinarritu gara, egungo egoeran ahalik eta gehien murgiltzeko asmoarekin. Era berean, bideoa sortzeko, ezgaitasuna duen pertsonaren ama eta GORABIDEko boluntario bat elkarrizketatu eta argazkien bitartez, bere bizitza erreproduzitzen duen ikus-entzunezko bat egin dugu, kasu erreal bat ezagutzeko asmoz.

Esan bezala, informazio teorikoaz gain, errealitatea islatuko duten pertsonen ikuspegiak lortu ditugu eta horretarako, GORABIDE, APNABI eta Gizarte Hezitzaileen Euskadiko Elkargora (GHEE hemendik aurrera) gerturatu eta haien sorkuntzan parte hartu duten pertsonengatik galdetu dugu. Ezgaitasunaren historian oinarritzen den lana izanik, zerbitzu honetan aitzindariak diren erakundeak aukeratu ditugu (GORABIDE eta APNABI), egoeren abiapuntua ezagutzeko asmoz. Beraz, besterik gabe, pertsona hauekin kontaktatu eta beraiekin elkarrizketa bat izateko proposamena egin diegu,

Gizarte Hezitzaile bezala, beraien ikuspegia ezagutzeko helburuarekin. Hitzordutako elkarrizketak, nahiz eta gidoia izan, erdi egituratuak izan direla esan daiteke; azken batean, esan dutenaren arabera, bide bat edo beste bat hartu dugu, galdetegia jarraitu baino, bien arteko elkarrizketa bat sortuz. Gutxi gora behera berrogei minututako (ahoz grabatuta) elkarrizketak izan dira, 2014. urtearen hasieran, erakundeetan egin direnak eta ondoren, transkribatuta, eranskinetan jaso ditugunak. Bestalde, 2013. Urteko Irailean egindako elkarrizketak (ezgaitasuna duen pertsonaren amari etxean eta bolondresari kalean) transkribatu beharrean, bideoan plazaratu ditugu. Beraz, lekukotzetan oinarritu naiz, hurrengoko pertsonak elkarrizketatuz: Emilio Arizaga (Gizarte Hezitzailea. APNABIko eguneko zentroen zuzendaria); Laura Velasco (Psikologoa. APNABIko eguneko zentro baten koordinatzailea); Jose Felix (Gizarte Hezitzailea. GORABIDEko etxebizitzaren zuzendaria); Iñaki Rodriguez (Administratiboa. GHEEko administratzailea); Israel Alonso (Gizarte Hezitzailea. GHEEko parte hartzailea eta EHUko irakaslea); Joane Serrano (GORABIDEko bolondresa) eta M^a Carmen Atxotegi (ezgaitasuna duen pertsonaren ama).

Informazioa eta testigantzak bilduta, guztia irakurri, aztertu, moldatu eta dokumentu batean islatu dugu non, modu labur batean, Gizarte Hezitzaile profesioaren prozesu historikoa eta figura honen garrantzia nabarmendu den. Honetaz gain, ezgaitasuna duten pertsonenganako, gizartean eman den ikuspegi aldaketa adierazi dugu, historiari so eginez, bizitako prozesu osoa azaltzen saiatuz.

4. GIZARTE HEZKUNTZAREN IBILBIDEA

4.1.- GIZARTE HEZKUNTZA PROFESIONALIZAZIORAKO BIDEAN

Gizarte Hezkuntzaren lanbidea aspalditik existitzen bada ere, honen profesionalizazioa, nahiko berria da. Gainera, lanbide honen goi mailako ikasketak 1991. urtean sortu ziren eta geroztik, Gizarte Hezitzailea izateko, unibertsitatean ikasi behar da. Jakina da historian zehar, Gizarte Hezitzailearen papera bete duten (zaurgarritasun egoeran egon diren pertsonekin lan egin dutenak) pertsonak egon direla baina, hauen profilak, gaur egunekoarekin konparatuz, zeharo desberdinak izan dira (psikologoak, irakasleak, zaintzaileak...). Beraz, Gizarte Hezitzaile gisa, garrantzitsua

iruditzen zaigu gure rolak izan duen prozesuaren eboluzioa aztertzea; honek, gaur egungo egoera hobeto ulertzen lagunduko digulakoan. Hortaz, Gizarte Hezitzailearen titulazioa sortu arte bizitzako garapena azertu dugu eta horretarako, elkarrizketez gain (I. Alonso eta I. Rodriguez, GHEE), prozesua biltzen duten testu desberdinetan oinarritu gara.

1945. urtetik aurrera, II. Mundu Gerraren eraginagatik, gizarte birsortzeko beharrean ikusi ziren. Gudak era guztietako beharrak sortu zituen eta ondorioz, gero eta pertsona gehiago ziren, zaurgarritasun egoeran zeudenak. Horrela, NBE (Nazio Batuen Erakundea); UNESCO (Hezkuntza, zientzia eta kulturarako nazio batuen erakundea); eta “Ongizatearen Estatu” sortzeko erabakia hartu zuten, gizartearen garapen integral bat lortzeko helburuarekin. Era berean, erakunde eta giza programa desberdinak sortzen dira eta azkenik, hau formalizatzeko, Frantzia, 1948. urtean, AIEJI (Desegokitutako gazteen hezitzaileen nazioarteko elkarte) sortu zuten. Honen helburua, haur eta gazteekin lan egiten zuten hezitzaileak antolatzea zen; hortaz, honekin batera, “hezitzaile berezia”-ren profila sortzen dute eta hauen xedea, giza zailtasunak dituzten gazteei laguntzea da (Rodriguez, 2005).

Espainiako kasuan, Hezitzaile Bereziaren figura, Katalunian sortzen da eta bertan, titulazioa lortzeko beharrezko formazioa eskaintzen dute. Momentuko testuinguru sozialari dagokionez (II. Mundu Gerraren ostean), esan, kultura babesle eta erreformatzailea daudela eta esku-hartzerako, espazio desberdinak (barnetegia, Miserikordiako etxeak eta Adigabeen Babes Auzitegiak) erabiltzen direla. Hauetan lan egiten duten profesionalak “celadores” bezala ezagutzen dira eta esperientziaren bitartez, aldaketa soziala lortzeko beharrezko elementu pedagogiko zein gaitasunak barneratzen dituzte. Horrela, profesionalen garapenaren bitartez, figura honek, gero eta garrantzia handiagoa hartzen du. Hala ere, Espainiako diktadorearekin, hauen lana debekatu eta ondorioz, modu informal eta klandestino batean lan egiten hasten dira (Rodriguez, 2005). Espainian existitu diren instituzioen artean, hauexek bereiz daitezke: txiro, zahar eta ume abandonatuentzako kultura babestua; babes eta erreformarako kultura; komunitatearen kultura eta desinstituzionalizatzeko kultura (Mendia, 1990).

Euskal Herriko kasuaz hitz egiten dugunean, ezinbestekoa dugu 1920. urtera jotzea, “El Salvador” deituriko Etxe Erreformatorioa sortzen baita, ohitura txarreko haur delinkuenteak onbideratzeko helburua duena, alegia (Rodriguez, 2005). Momentuko testuinguruaren (Gerrate Mundialak eta diktadura) eraginez, garai honetako prozesu

hezitzaile guztietan autoritarismoa eta haienganako gogortasuna nagusitzen da eta honek, erabiltzaileen garapena oztopatzen du, ez direlako beraien behar eta interesak kontuan hartzen. Hortaz, benetako aldaketa soziala, diktaduraren amaierarekin datorrela esan daiteke. Une honetan (1979. urtean), Kataluniako Hezitzaile Berezien Elkarteak sortu eta AIEJrekin erlazioak sendotzen dituzte, horrela, hezitzaile profesionalaren figura indartzen doa; azkenik, estatu mailara zabaldu arte. Katalunian sortutako elkartearen eraginez, 1984. urtean, Bizkaiko hezitzaile talde batek, lanbidearen Espainiako bigarren elkarteak osatzen du eta honek, Hezitzaile Bereziaren figura indartzen du: alde batetik, Katalunian errekonozimendu ofiziala hartzen duelako eta bestetik, profesionalen arteko elkarteak antolatzen hasten direlako. Horrela, Euskadiko lehenengo esperientzia sozio-hezitzaileak¹ garatzen dira, onarpeneko etapa luze eta zail bati hasiera emanez (Mendia, 1990). Beraz, hezitzailearen figura gero eta gehiago definitzen da, 1987. urtean, Iruñean, Hezitzaile Bereziaren Lehenengo Batzarra antolatuta arte. Honetan, estatu mailako Hezitzaile Berezien Elkarte Profesionalen Koordinatzailea sortzen da eta honen helburua, Hezitzaile Berezientzako Formaziorako Koordinatzailearekin elkarlanean aritzea izango da; hau da, hezitzaile berezi gehiago formatzea eta honen figura definitzea.

Hezitzaileen profesionalizazio osoa lortzeko asmoarekin, Unibertsitate Kontseiluari, goi mailako titulua sortzeko proposamena egiten zaio eta 1991. urtean, azkenik, Gizarte Hezkuntzako Diplomaturara sortzen da, hiru perfil osatzen dutelarik: hezitzaile berezia, helduentzako hezitzailea eta dinamizatzaile soziokulturala, hain zuzen. Horrela, 1991. urtetik aurrera, Donostiako unibertsitateak Gizarte Hezkuntzako diplomatura eskaintzen du eta hasiera batean, lanean zeuden gizarte hezitzaileei zuzenduta zegoen (Fernandez, Arandia, Alonso, Aguirre, Remiro, Beloki eta Etxebarria, 2007). Horrela, 90. hamarkadan, diplomatura sortu ondoren, profil hauek koordinatu eta bateratuko duten topaketak, bilerak zein mintegiak bideratzeko gero eta behar handiagoa dago, beraien ardurak, hauek izanik: profesional gisa errekonozimendua lortzeko beharra; bizipenak partekatzea eta praktika eta behar sozio-hezitzaileen arteko kontraste bat lortzea. Horrela, 1988. urtean, *Federación Vasca de Asociaciones Profesionales de Educadores/as Sociales del País Vasco* sortzen da, ondoren, Gizaberrin (2005. urtean) eratzen dena eta helburutzat, hurrengoko hau duena: Gizarte

¹ *Familias sustituidas de la fundación de servicios sociales municipales de ayuntamiento de Gasteiz, núcleos familiares de Zorroga del patronato de beneficencia de Donostia, hogares municipales de Baracaldo, pisos de Agintzari, hogares funcionales de IFAs...*

Hezitzaileen eta profesio honen interes eta eskubideak defendatzea. Halaber, Gizaberri, autonomia erkidegoko elkargoa izanik, EAeko Gizarte Hezitzaileen elkargoak barne hartzen ditu, guztiak bakarrean eratuz. Gizarte Hezkuntzako Diplomaturak, hezkuntza sistema formaletik kanpo lan egingo duten hezitzaileak sortzeko helburua du, gizarteko arlo zabal batean lan egingo dutenak, alegia. Diplomaturaren sorkuntza honen bitartez, lanbide honen ikasketak, garrantzia hartzen du, ezagutza desberdinak zehaztuz, gaitasun espezifikoak dituzten pertsonak sortzen baititu. Hortaz, honek, Gizarte Hezitzaileari ikusgarritasuna, funtzionalitatea eta zentzu profesional zein publikoa ematen dio, errekonozimendu soziala lortuz (Hernandez, 2008). Gainera, AIEJk markatutako irizpide kuantitatiboan (erakunde eta gizarte hezitzaileen eskolaren organizazioa; kode deontologikoa; titulazioa eta marko juridikoa) bitartez, lanbidearen ofizialtasuna lortu da, profil zehatz bat sortuz eta errekonozimendua (soziala zein juridikoa) sustatuz.

Gizarte Hezkuntzaren eboluzioan bost eredu desberdinu direla esan daiteke: Zaintzailea (1940. urtera arte); Gazteen gaitasunen sustatzailea (1960. urtera arte); hezitzaile psikologoa (1960-1970); bitartekaria (1970. urtera arte); kaleko hezitzailea (1980. urtean) eta azkenik, egungo krisiak eraginda, lan-sustatzailea. Hala ere, eredu hauek gehitzen joan direla nabarmendu behar da; hau da, Gizarte Hezitzailearen profila ez da behin eta berriz aldatu, gizartearen beharren arabera, funtzio bat edo beste gehitu izan du, azkenean, hauek batuz. Beraz, momentuko beharren arabera, Gizarte Hezitzaileen funtzioak gehitzen joan dira, azkenean, arlo desberdinetako egoerei erantzunak bilatuz eta ondorioz, esku-hartzearen espektroa zabalduz.

4.2.- DOKUMENTU PROFESIONALIZATZAILEEN GARRANTZIA

Profesionalizazioa edozein jarduera lanbidean bihurtzeko pasa beharreko prozesua dela uste arren, errealitatean, termino konplexu honek, ideia, funtzio eta helburu desberdinak dakartza. Profesionalizazioa testuinguru laboral zein sozialean edozein profesionalen ekintzen printzipioak biltzen dituen oinarritzko euskarria da. Saezek (2006: 11) jaso bezala, Hannes Siegris-ek profesionalizazioa definitzeko, 4 ikuspegi desberdintzen ditu: 1) Jarduera bat profesio akademikoan bihurtzeko helburua duen prozesua; 2) Ezagutza eta lanaren arteko erlazioa sortzen duten politikak; 3) Aukeren monopolizazioaren bitartez, maila sozial eta ekonomiko altua lortzeko helburua duen prozesua, eta 4) Talde kontzientzia zehatz bat garatzeko helburua duten prozesu eta ekintza desberdinak.

Ikus daitekeen bezala, profesionalizazioak gai asko biltzen dituen kontzeptu konplexua da eta ikuspegiaren arabera, esanahi bat edo beste izan dezake. Profesionalizazio prozesu bat hasterakoan, jardueraren errekonozimendu soziala lortzeaz gain, baliabide gehiago batu eta Estatuaren legitimizazioa lor daiteke. Hortaz, prozesu profesionalizatzaileak bi helburu dituela esan daiteke: alde batetik, jarduerak profesiotan bilakatzea eta bestetik, profesionalaren profil estandarra sortzea. Gizarte Hezitzaileen Euskadiko Elkargoa sortzeak (GHEE hemendik aurrera), lanbideari garrantzia emateaz gain, guztion onurarako izango diren eskaerak egiteko balio izan du, profesional bezala ditugun beharrak aldarrikatzeko, hain zuzen.

“por una parte son los representantes del colectivo profesional de los educadores sociales y es el representante ante la administración y los órganos. Ese el poder estar ahí, dar la opinión del colectivo, dejarse ver... que se vea lo que se piensa de una forma unánime, la voz de los profesionales. Luego otro elemento importante es la universidad, a la hora de configurar la formación, del interés de esta, que esta tenga el mayor acercamiento a la profesión, que no solo sea un elemento teórico” (I. Rodríguez).

Profesionalizazioaren bitartez, kultura profesional bat sortzeaz gain, etorkizunerako baliagarriak izango diren tresna, metodo, helburu ... komunak transmititzen dira: *“la propia consolidación. La propia creación, la propia fundamentación. El colegio ha ayudado a que la figura esté presente, se tenga en cuenta y que sea una figura educativa referente”* (I. Rodríguez). Gizarte Hezkuntzaren gradua sortzearekin, unibertsitatearen helburua, profesional “onak” sortzea da, profesionalizatuak, hain zuzen. Horregatik, beharrezkoa da unibertsitatea profesionalizatzea, garapenerako instituzioa izatea, profesional ezatua eta ezagutza, produkzioa eta transmisioa lortzeko bideratua dagoena, alegia. Modu honetan, etorkizunean Gizarte Hezitzaileak izango diren pertsonen prestakuntza egokia bideratu daiteke, ezaugarri desberdinak kontuan hartuz, hala nola: konpetentziak, gaitasunak, kultura, gainontzeko profesionalakiko desberdintasunak, formazio metodoak ... eta abar. Gainera, Gizarte Hezitzaileen eskolak, baliabideak garatzea sustatzen du, profesionalen orokortasun bat bilatuz:

“Es un espacio de participación a nivel de desarrollo profesional a nivel de reivindicación de cuidado que la legalidad se lleva a cabo. También con el código deontológico están haciendo un trabajo importante... se ofrece un espacio de referencia y de interlocución para la administración para los trabajadores y también para la universidad, que son los que forman los educadores” (I. Alonso).

I. Rodriguezek dioen bezala², Gizarte Hezitzaileak orientatzeko tresna paregabea da, hauen ezagutza eta esperientziak tartekatzeko espazioa sortzen duena eta gure tokia errebindikatzeko baliabide indartsua dena. Halaber, hau kontuan hartuz, profesionalizazio prozesu bat bideratu daiteke, lanbide honen legitimitatea finkatu eta gizarte lanetan daukan esku-hartze beharraren garrantzia hedatzeko helburua izanik (Saez, 2006: 27).

Behar honetatik abiatuta, ASEDESek Gizarte Hezkuntzaren definizioa, funtzioak, kode deontologikoa eta gaitasunak zehaztu zituen eta honen bitartez, esandako zilegitasun eta ezagutza lortzeaz gain, identitate eta kultura profesional bat sortu izan da. I. Rodriguezek dioen bezala³, sortutako dokumentuek, Gizarte Hezitzaileen lana gidatzeaz gain, garrantzia eta balore profesionala ematen diote. Hala ere, profesionalizazio prozesu bat bideratzeko, ezinbestekoa da aktore desberdinen elkarlana sustatzea, hauek hurrengokoak izanik: Profesionalak (organizazioak eta kultura profesionala), estatua (gizarte politika eta zerbitzuak) eta administrazio publikoak, gune akademikoak (ikerkuntza, formazioa, akreditazioa), merkatua (lan mundua), erabiltzaileak eta beste profesional batzuk. Azken batean, eraginkortasuna lortzeko, ezinbestekoa da arlo honetako profesional guztiak norabide berean lan egitea, elkarlana sustatuz eta etorkizun iraunkor bat garatuz. Aurretik aipatutako testuan agertzen den arabera, Berlant-ek, profesionalizazioa lortzeko, formazioa garatu behar dela dio: *“La formación en la carrera es, pues, uno de los factores claves en las estrategias utilizadas por las ocupaciones para ser reconocidas y lograr el estatus de profesiones”* (Saez, 2006:8).

E. Arizaga, L. Velasco eta J. F. Renteriaren ustetan, egungo Gizarte Hezitzaileak, lehengoak baino prestatuago gaude. Nahiz eta formakuntza teorikoa jaso, gure ikuspuntua garatuago dagoela adierazten dute, unibertsitateak sustatutako formazioak, beharrezko gaitasunak transmititzen baititu:

“Si que venís más preparados. Sabéis a lo que venís, yo creo que hay unos servicios más estructurados, donde se os contempla a vosotros como profesionales, Antes las competencias se conseguían mas con la experiencia y ahora es como que,

² *“Por una parte se ofrecen servicios a nivel de asesoramiento jurídico, posibilidad de seguro, contacto con otros profesionales que quieran desarrollar algunas actividades de conocimiento más profundo, el poder asociarte con la universidad en algunos trabajos de investigación, el poder participar en el propio desarrollo de la profesión... también tiene sus límites ya que es voluntario y pues los ritmos son diferentes.”*

³ *“definirla, darle un contenido. Le ha dado valor profesional”*

no con las competencias desarrolladas pero si que venís con una conciencia, sabéis a lo que venís, cosa que antes, muchas veces, no se sabía. Venís con cierta formación. El resto os lo va dar la experiencia.” (E. Arizaga).

“Los educadores sociales que entráis sobre todo venís con el chip ese de trabajo con personas, personas que necesitan. Se viene con el chip de ser un apoyo para esa persona” (L. Velasco).

“Los educadores utilizan estas claves de trabajar desde lo cotidiano, de aprovechar las oportunidades, de tener muy en cuenta a la personas en el desarrollo y tal... no necesariamente se ve en otras titulaciones o en otras licenciaturas. Al final al educador social lo que le hace diferente es la intervención directa y más personal que pueden tener otros profesionales. Y esto es crucial porque todas mis intervenciones y decisiones se van a basar en el análisis que estoy haciendo con la persona. Al final el que convive y pasa más tiempo con estas personas es el educador social y lógicamente ser él, el que tenga que estar y analizar. Al final es el que ve todo el día a día y el que de verdad conoce y desarrolla sus capacidades y necesidades.” (J. F. Rentería).

Gure diziplinak arazo konplexu eta jarraituei aurre egiteko beharrezko metodo eta gaitasunak eskaintzen ditu eta orain, profesionalizazioa lortu dugula, etorkizunera begira, taldean egin behar dugu lan, gizartean daukagun tokia aldarrikatuz (Saez, 2005: 132). J. F. Renteriak dioen bezala⁴, gure lana garatzeko, elkarlana sustatu behar dugu, profesional desberdinen esperientziak kontuan hartuz eta gai desberdinak garatuz, unibertsitatean ematen den formakuntzaren eraginkortasuna bilatuz.

4.3.- GIZARTE HEZITZAILEAREN PAPER A EZGAITASUNA DUTEN PERTSONEN ESKU-HARTZEAN

Gaur egun, ezgaitasunen bat duten pertsonak, kalitatezko bizitza bat izateko eskubidetik, gero eta hurbilago daude. Une honetan, kolektibo honekin lan egiten duten erakunde eta profesional kualifikatuak daude eta hauen helburua, erabiltzaileen bizitza kalitatea hobetzeaz gain, hauen gizarteratzea lortzea da, beraien parte hartze aktiboa sustatuz. Hala ere, historian zehar, pertsona hauenganako ikuspegi desberdinak egon dira eta “anormalak” izatetik, pertsonak izatera pasatu direla esan daiteke. Antzina, gainontzeko pertsonen ezaugarrietatik aldentzen ziren pertsonak “anormaltzat” hartzen ziren, plano desberdinak aintzat harturik: psikologikoa, soziala, fisikoa, intelektuala, morala eta biologikoa (Alvarez, 1996). Halaber, Gizarte Hezitzaileak (profesional bezala) existitu aurretik, ezgaitasuna duten pertsonekin, profil desberdineko

⁴ “Estamos intentando sacar grupos de trabajo, que puedan sacar material e ir haciendo y cambiar pues desde los materiales hasta las formas de ver las cosas, al final es necesario reciclarse. Cada grupo desarrolla un tema y cuentan experiencias y buenas prácticas que se van haciendo...”

(psikologiak, zaintzaileak, irakasleak...) profesionalek egin dute lan eta haien helburua, gaur eguneko xedetik, oso urrun zegoen. Beraz, Gizarte Hezkuntzak kolektibo honekin daukan erlazioa ulertzeko, garrantzitsua iruditzen zait, era labur batean, ezgaitasuna duten pertsonen historian zehar bizi izan duten eboluzioa aztertzea eta horretarako, testu desberdinetan oinarrituko naiz, hiru etapa desberdinduz: Ezertarako balio ez zutela uste zen etapa; gizarterako baliagarriak izan daitezkeen etapa eta azkenik, ezintasunak alde batera utziz, gaitasunetan zentratzen den etapa.

- Ezertarako balio ez zutela uste zen etapa: Darrechek eta Zenitagoiak (2008) dioten bezala, “anormalak” izatetik, beraienganako beldurra izatera eta azkenik, inozotzat hartu eta karitatez tratatzera pasatu izan dira. Garai honetan, erlijio katolikoaren eraginez, txarto ikusiak zeuden eta ondorioz, izugarritzko bazterketa edota kasu askotan, eugenesia pairatzen zuten. Ezgaitasunen bat zuten pertsonak, arrazoi unibertsalarekin bat ez zetozen gainontzeko pertsonekin batera (ume abandonatuak, txiroak, zoroak...), gizartea beraiengandik babesteko, muturreko baldintzetan giltzaperatzen zituzten, hauetariko asko eta asko, akabatuz. Hezkuntza pribilegio bezala ulertzen zen eta ondorioz, kolektibo honek ez zeukan hezkuntza jasotzeko eskubiderik. Esan bezala, garaiko normaltasunetik urruntzen ziren guztiak, barnetegietan giltzaperatzen zituzten, beraien arazoa kontuan hartu gabe. Hala ere, XVIII. mendean, instituzioek metodo sailkatzaileak sortu eta hauen artean sailkapenak (zoroak, zentzugabeak, gaizkileak...) egiteari ekin zioten, nahiz eta egoera ez hobetu. Aurretik aipatutako autoreek diotenaren arabera, XVIII. mendean gor eta itsuentzako, dirudunentzako zein txiroentzako, lehen eskola publikoa sortu zuten Frantzian. XIX. mendearen hasieran, Jean Itard medikuak adimen urritasuna zuen pertsona batekin lehen esperimendua eginik, pertsona hauek ere ikas dezaketela adierazi zuen, hezkuntzarik jaso ezin dutelako mitoarekin bukatuz. Horrela, 1842. urtean, adimen urriko umeen irakaskuntza eta tratamendu medikoa arduratzen zen lehenengo zentroa sortu zuten, “kretinoentzako” zerbitzu instituzionalen aitzindaria izanik. Era berean, 1850. urtean, Eduard Seguin-ek, atzeratuentzako lehen eskola eta Samuel Howek, diru publikoarekin ordaindutako lehen barnetegia sortu zuen, atzeratuentzako hezkuntza publikoaren alde eginez. Beraz, etapa luze honetan, akabatuak eta baztertuak izatetik, hezigarriak izatera pasatu ziren, gizartean, beraienganako ikerketarako interesa piztuz eta etapa

berri bati hasiera emanez: baliagarriak izan daitezkeen etapa, alegia (Darreche, eta Zenitagoia, 2008).

- Baliagarriak izan daitezkeen etapa: Etapa berri honetan, ezgaitasuna duten pertsonak birgaitu daitezkeela pentsatzen hasten da. Orain arte, ezgaitasuna kausa erlijiosoan bitartez justifikatzen da (ama bekataria dela pentsatuz) baina, etapa honetatik aurrera, kausa zientifikoetan oinarritzen dira; hortaz, konponbidea daukala uste dute. Beraz, birgaitzea edo “normalizatzea” lortu ezkerro, pertsona hauek gizarterako baliagarriak izan daitezkeela uste dute eta honek, gizarte osoaren ikuspegian eragiten du. Etapa honetako helburua, ezgaitasuna duten pertsonak normalizatzea da eta egindako prozesua ebaluatzeko, lortutako gaitasunetan oinarritzen dira. Horrela, arazoaren konponbidea bilatu arte, instituzioen bitartez, gizartetik baztertzen dira eta behin ustezko konponbidea aurkitzen denean, ezgaitasuna duen pertsona birgaitzeari ekiten diote. Era berean, gaitasunak garatzea lortzen ez badu, berriz ere, gizartetik baztertzen da, mehatxu sozial bezala ikusten baitziren (Romañach, 2009).

Darreche eta Zenitagoiak (2008) diotenaren arabera, 1905.urtean, H. Simon-ek, lehen adimen-eskala argitaratzen du eta honek zenbait aldaketa eragiten ditu. Harrezkero, hezkuntza, adimen kontzientzia minimo bat (50 baino handiagoa) dutenentzat bideratzen da eta gainontzeko guztiak (oraindik “anormal” bezala ikusten zirenak) barnetegietan sartzen dira, ezgaitasuna duten pertsonak instituzionalizatzea, aukerarik onena dela pentsatuz. Hala ere, 1934. urtean, E. H. Martens-ek, hezkuntza bereziaren helburu orokorrak definitu zituen: gaitasun, mugaketa eta interesen arabera ikastea; heziketa pertsonalizatua; lan-bizitzan zein balio sozial eta kulturaletan hezte eta azkenik, heziketak ume guztien onura bilatu behar duela, hain zuzen. Era berean, Bigarren Mundu gerraren aurreko urteetan, zerbitzuen garapen bat eman zen eta estatuak, instituzio espezializatuak eta babes legalak sortzeari ekin zion (Darreche eta Zenitagoia, 2008) . Hala ere, nabarmendu, garai honetan pertsona hauek jasotzen duten tratua oso kaxkarra dela eta oraindik, “anormalak” bezala ikusten direla; hau da, zientifikoki erabilgarriak direla (ikerkuntzarako baliagarriak) uste arren, sozialki, aurreko urteetako trataera bera jasotzen dutela.

- Ezintasunak alde batera utziz, gaitasunetan zentratzen den etapa: II. Mundu

Gerrak sortutako eraginen ondorioz, gizarte-zerbitzu politika eta errehabilitazio-praktika berriak sortzen dira, hezkuntza erantzun berriak sustatuz. Gainera, ezgaitasuna duten pertsonak dauden erakunde batzuen egoera kaxkarrak plazaratzen dira (bideoan agertzen den bezala, Madrileko erakundean, esaterako, tratu txarrak jasotzen dituzte) eta ondorioz, hezkuntza eta komunitate zerbitzu berriak sortzen dira. Era berean, Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala (1948) eta ongizate estatuaren bilakaerarekin, Hezkuntza Bereziaren eskolak zabaltzen dira (Darreche eta Zenitagoia, 2008). Etapa honen helburua, ezintasunak alde batera utziz, gaitasunetan zentratzea da eta ikuspegi holistiko baten bitartez (aisialdia, kultura, kirola...), ezgaitasuna duten pertsonak, gizartean parte hartzeko aukera dute. Gainera, “anormaltasuna” alde batera utziz, “ezgaitasuna duen pertsona”-ren terminoa zabaltzen da, ikuspegi berri bat sortuz (Romañach, 2009). Halaber, gurasoen elkarteek, aldarrikatzen duten erantzuna jasotzen hasten dira (esaterako, estimulazio goiztiarreko programen garapena) eta hezkuntza berezia, jada, hezkuntza etapatzat hartzen da. Era berean, pertsona bakoitzarentzako helburu espezifikoak ezartzen dira, ezgaitasuna duen gizaki bakoitza desberdina dela ulerturik. Eredu berri hau pertsonen duintasun, berdintasun eta askatasunean oinarritzen da eta pertsonen arteko desberdintasuna gizartearentzako aberasgarria dela ulertzen da; hortaz, inklusioa bilatzeko helburua dagoela esan daiteke. Gainera, pertsona ororen autonomia sustatzeko beharra ikusten da, pertsona bakoitza erabakitzeko aske izan behar dela nabarmenduz eta bizitza duin bat aldarrikatuz (Romañach, 2009). Beraz, laburtuz, gaitasunen etapa honetan, ezgaitasuna duten pertsonen baliabideak eskaini behar zaizkiela pentsatzen da, bizitza kalitatea hobetzeko asmoarekin. Hala ere, Romañach-ek (2008) dioen bezala, gaitasunen etapatik, aniztasunaren etapara pasatu gara. Eredu hau, aurreko etapatan gizartean ematen diren desberdintasun politiko, bioetiko zein sozialengatik, Espainian 2006. urtean jaiotzen da. Beraz, gaitasunen etapa bezala ezagututako ereduak, norabide aldaketa bat egin eta aniztasunaren etapa izatera pasatzen da. Honetan, esan bezala, ezgaitasunak gizartea aberastu dezakeela pentsatzen da eta pertsona guztien aniztasunean oinarrituz, gizaki ororen duintasuna (barnekoa zein juridikoa) bilatzen da, desberdintasunak alde batera utziz. Hortaz, eredu hau, eskubide eta bioetikaren bitartez, pertsona guztientzako bi helburu planteatzen dituela esan daiteke: alde batetik duintasuna eta bestetik, aniztasunaren

askatasuna (pertsona bakoitza desberdina dela). Era berean, aipatutako guztiez gain, etapa hau beste hainbat printzipiotan oinarritzen da: pertsona guztiek balio zein eskubide berdinak dituztela; aniztasun funtzionala ez dela gaixotasun bat; pertsonen arteko desberdintasunak eta hauen autonomia moralaren garrantzia azpimarratzen dute, besteak beste (Palacios eta Romañach, 2007: 207).

Ikus daitekeen bezala, ezgaitasuna duten pertsonen gaineko gizarte pertzepzioak izugarritzko eboluzioa pairatu izan du, nahiz eta oraindik, alor desberdinetan (sozial, judizial zein bioetikoan) bazterketa pairatzen duten.

“yo me acuerdo que entrabas en un bar con un colectivo y pues llamabas un poco la atención. Ahora también llamas la atención, pero, es diferente la mirada que hay, no? Nadie discute el derecho de poder entrar, sale en las noticias si a un grupo de personas discapacitadas no les dejan entrar en una discoteca... incluso es denunciabile. Todos tenemos esta concienciación pero, ya las personas con discapacidad nos empiezan a decir el: yo ya puedo colaborar en la sociedad.” (J. F. Renteria)

Gizartean dagoen ikuspegia zabaldu da eta ondorioz, “anormaletatik”, pertsonetara; instituzio berezietatik, gizarte zerbitzuetara; mehatxuak izatetik, eskubidedun pertsonak izatera pasatu gara (Darreche eta Zenitagoia, 2008), nahiz eta oraindik, gauza asko aldatu behar diren.

4.4- GIZARTE HEZKUNTZAREN ERRONKA EZGAITASUNA DUTEN PERTSONEKIN

Gizarte Hezkuntza orain dela gutxi profesionalizatu bada ere, lanbide honek daukan historia, luzea da. Kolektibo asko eta asko dira zaurgarritasun egoeran daudenak (ezgaitasuna duten pertsonak, drogomenpekoak, etorkinak, nerabeak ... etb) eta ondorioz, gizarte hezkuntzaren barne dihardutenak. Gizartea aldakorra bada ere, honetatik kanpo dauden pertsonak betidanik existitu dira eta era berean, hauekin lan egin duten (nahiz eta gizarte hezitzaileak ez izan) profesionalak ere, esperientzia handia daukate. Historian zehar izugarri sufritu izan duen kolektiboa da, hasiera batean, era bat baztertuak izan direnak eta ikuspegi zabalagoa duen gizarte honetan, inklusioa behar dutenak (beste kolektibo askoren antzera).

Gizartea aldakorra den heinean, ezgaitasuna duten pertsonenganako egon diren ikuspegiak ere, eraldatu izan dira. “Anormalak” direnaren ustea, beraienganako beldurra sentitzea, inozotzat hartu eta karitatez tratatzea; isolatzea... eta hauenganako beste

hainbat joera desberdin egon dira. J. F. Renteriarri eginiko elkarrizketan, kolektiboak bizitako trataera argi ikusten da: *“en aquella época no era ni Gorabide, se llamaba AVPS (Asociación Vizcaína Pro-Subnormales)”*. Ezgaitasuna duten pertsonen bizitza kalitatea hobetzeko helburua duen erakundeak ere, “Subnormales” bezala definitzen zituen eta honek, jada, pertsona ororen duintasuna urratzen du. Beraz, historian zehar izugarritzko bazterketa jaso izan duen kolektiboa izan da, izugarritzko basakeriak (giltzapetu, eugenesia, zientziarako osasun probak...) pairatu dituen, alegia. E. Areizagak, dioen bezala⁵, momentuaren arabera, paradigma desberdinak bizi izan ditugu eta errehabilitazio bat lortu daitekeela pentsatetik, baztertuta eduki eta azkenik (gaur egun) gaitasunetako etapa batera heldu gara, non, helburua, inklusioa den. Era berean, ezgaitasuna duten pertsonen familien ikuspuntua ere aldatu egin da, hauen garapena gero eta gehiago sutatuz:

“He estado con gente que se ha ido haciendo mayor y ahí he visto un cambio pero, por lo mismo, la misma evolución. La familia de los más mayores siempre velando por ellos, haciendo todo por ellos, siempre siguen siendo los niños. Sin embargo, en los más jóvenes se va viendo como les dejan desarrollarse más, mas libertad, tomar elecciones...” (L. Velasco).

“antes cuando había un problema siempre se recurría a un psicólogo que precisamente no era el que más le conocía al usuario. Te hacía un planteamiento, normalmente muy especificado de pasos desmenuzados para un aprendizaje y tal, y tu ejecutabas aquello...” (J. F. Renteria).

Gizartearen pertzepzioaren arabera, beraiekin profil batek edo beste batek egin izan du lan. Nahiz eta erabiltzailearen esku-hartzea gizarte hezitzaileek bideratu, esaldi honetan ikusten den bezala, psikologoetara jotzen zuten, teoriar oinarrituz, diagnostiko bat lortzeko asmoarekin. Horrela, pertsona egoeraren erdigunetik aterata eta bere testuingurua kontuan hartu gabe, jarraitu beharreko prozesua eratzen zuten, bere ongizatea alde batera utziz eta arazoaren konponbidean zentratuz. Denborarekin, aldiz, paradigma aldaketan eraginez, hurrengokoa gertatu izan da: *“ese modelo psicológico ya paso, que paso a un modelo más educativo, de calidad de vida, que ya el profesional de atención directa empezaba a ser protagonista, que era quien lo conocía, la persona que sabía lo que quería...”* (J. F. Renteria).

⁵ *“Al principio intentábamos curarles. Hemos pasado el modelo de bienestar social y el médico y hasta el social. En estos momentos estamos en esa transición de cambio de paradigma de lo que es el pensar que nosotros somos y tenemos que hacer, a ser menos apoyo. Es la persona el eje central de nuestro trabajo, cosa que antes no era.”*

Gaur egun, Gizarte Hezkuntza profesionalizatu denez, pertsona hauekin lan zuzena egiten dutenak Gizarte Hezitzaileak dira eta beharrezkoa da gaitasun zehatzak dituzten profesionalak izatea; horrela, erabiltzailea esku hartzearen erdigunean jarriz, bere ongizatea aurkituko dugu. Hau da, *“antes el que estén bien podía ser que estén bien cuidados, que fueran como un pincel y ahora el estar bien es que me dejes decidir a mí, que viva a gusto.”*(J. F. Renteria). Azken batean, gizarteak pairatutako aldaketekin batera, beharrezkoa da gure lana norbanako bakoitzera egokitzea eta horretarako, E. Arizagaren ustez, Gizarte Hezitzaile gradua egokiena da:

“Creo que la titulación de Educación Social es la más adecuada para este trabajo; es necesario y no puede desaparecer. Si no seguimos moviéndonos no acabamos de asentar el perfil, hemos pasado del integrador, de formador profesional, de experto de inclusión... no sé cuantas titulaciones ha habido, pero esto es lo que hace que este perfil profesional no se asiente”. (E. Arizaga)

Gizarte Hezitzaile gisa, gure tokia aldarrikatzeko beharra daukagu, profil profesional desberdinen eraginez, gure lanpostua finkatzeko arazo handiak baititugu. Gainera, honen aurrean, Gizarte Hezitzaileen eskolak zera aldarrikatu zuen:

“en la última convocatoria de 2006 que se hizo, se pidió que fuera la figura del educador social activado, titulado y habilitado. Se acepto y la diputación ya lo saco así, por lo menos en las convocatorias, lo plantean así. Lo ponen en marcha a partir de Agosto de 2012 cuando ya entra en vigor la disposición transitoria del decreto 131 del 2008” (I. Rodríguez).

Era berean, profesional honek zera adierazten du: *“en el preámbulo de la ley de servicios sociales del 2008, se nombra la figura como profesionales de referencia de la atención primaria de servicios sociales”*. Hala ere, gaur egungo egoera aztertuta, Gizarte Hezitzaileen lanpostuak profil desberdinez osaturiko profesionalek betetzen dituztela ikus dezakegu; hortaz, ezinbestekoa dugu gure lana garatuko duten eskubideak aldarrikatzea, gure tokia bilatzea eta profila finkatzea.

Ezgaitasunena duten pertsonen ildotik jarraituz, esan, paradigma desberdinetatik pasatu bagara ere, gaur egun, inklusioa bermatuko duen ikuspegi berri batera pasatu behar garela.

“Y creo que es el siguiente modelo, que es el que ahora vamos integrando en Gorabide. Vamos a poner en el centro a la persona usuaria; vamos a preguntarle qué es lo que quiere; vamos a dejar de interpretar de todo por el bien de la persona usuaria” (J. F. Renteria).

Historian zehar, ezjakintasunaren eraginez, kolektibo honekiko harremanak oso desberdinak izan dira eta era berean, hauekin lan egin duten profesionalen profilak

espektrua handia hartu izan du. Hala ere, gaur egun, inklusioa bilatzeko helburua izan behar dugu eta horretarako, ezinbestekoa da garaian garaiko testuingurua ezagutzen duten Gizarte Hezitzaileak sortzea

“antes eran autistas, ahora ya son personas autistas. Antes eran rehabilitables, que tengan un sitio para hacer cosas, ahora ya es darles apoyo no para que se integren ya, sino para que se incluyan. Ahora le das apoyo para que poco a poco vaya el haciendo, que participe. Lo importante es que desarrollen sus capacidades para incluirse en el mundo” (L. Velasco).

Hortaz, nahiz eta kolektibo honek jasandako eboluzioa oso aldakorra izan, gaur egun norabide berean lan egiteko beharra daukagu, pertsona bakoitzean oinarrituz eta beraien gaitasunak ahalik eta gehien garatuz. Modu berean, hurrengokoa aldarrikatzen du:

“antes era que tengan un sitio donde estén apartados y no nos molesten. Ahora ya estamos en la inclusión ¿no? Tienen que participar. No vale con que tengan un lugar; participar y que lo demás también se adapte a ellos...” (L. Velasco).

Ikus daitekeen bezala, paradigmak izugarri aldatu dira eta behar hauek asetzeko, ezinbestekoa dugu Gizarte Hezitzaileok gure tokia aldarrikatzea, gure profesioak honetarako prestatzen gaituelako eta pertsona hauen bizitza kalitatea hobetzea ezinbestekoa delako. Argi dago, Gizarte Hezitzaileez gain, beste profesionalen lana ere garrantzitsua dela baina, bakoitzak bere tokia behar du eta elkarlanaren bitartez, pertsona hauen duintasuna defendatu behar dugu.

Errealitatean oinarritutako Gizarte Hezitzaileak sortzeko beharra daukagu eta horretarako, I. Alonsok dioen bezala⁶, errealitatean oinarritutako ikasketak bideratzea ezinbestekoa da. Honetaz gain, Gizarte Hezitzaile bezala, ezinbestekoa dugu pertsona hauen garapena lortzeko lan egitea eta horretarako, kolektiboarekiko interesa izateaz gain, motibazio handia behar dugu:

“Me he encontrado con personas más o menos motivadas pero, también con las típicas personas de es un trabajo más y yo creo que lo tienen que llevar muy mal... si estas en este trabajo porque es un trabajo más y por trabajar creo que tiene que ser muy duro. Lo llegarás a hacer pero, yo creo que nunca bien del todo.” (L. Velasco).

⁶ *“hay que ir hacia un momento dado en que para los educadores la universidad sea una referencia y un apoyo y que esta esté llena de ventanas abiertas por las que entre la realidad. Tiene que ser activo porque la sociedad no para de cambiar y esto también tiene que ir cambiando.”*

5. GIZARTE HEZITZAILEON BEHARRAK

Behin eta berriz esan bezala, Gizarte Hezitzaileak aspalditik existitu badira ere, hauen profesionalizazioa berria da. Testuinguru sozial desberdinen eraginez, toki batzuetan beste batzuetan baino azkarrago garatu den lanbidea da eta arazo sozialen ondorioz, gizartetik at geratu diren pertsonen gizarteratzea bilatzeko helburua dauka. Hala ere, Gizarte Hezitzaileenganako dagoen ikuspegi soziala nahiko negatiboa dela dio, J. F. Renteriaren ustetan⁷, irabazi asmorik gabeko erakundeekin lan egiten dugunez, diru laguntzak gastatzen dituzten kolektiboei laguntzen diogunaren ustea dago, balore soziala era batean gutxietsiz. Ildo beretik jarraituz, I. Alonsok, zera dio:

“falta mucha sensibilización y mucha promoción de lo que se supone y no se supone... porque claro, muchas veces nuestra profesión está ligado a lo negativo, el decir: es que estos son los que ayudan a los inmigrantes, estos ayudan a los que no trabajan...” (I. Alonso).

Ikusi daitekeen bezala, nahiz eta gizartetik, gizartearentzako lan egin, ikuspegi negatiboak sortzen dituzten uste asko daude eta horrela, ezinezkoa da gure lanaren benetako errentagarritasuna erakustea. Hortaz, Gizarte Hezitzaile bezala, beharrezkoa dugu sentsibilizazioa lortzea, gizarteak gure lana baloratzea eta hau eginik, gure profesionalizazioa garatzen jarraitzea. Oztopo handiak pasa dituen lanbidea da, pertsona askoren mobilizazioa behar izan duena; baina, orain, gure lana errepresentatzen duen elkargo bat dugula, mobilizazio hau bertan behera geratu da:

“ A mí la sensación que me da es que la participación que hubo en la asociación en su momento era mucho mayor del que puede haber ahora. Ahora es como que ya está hecho y se han quedado unos pocos que siguen haciendo un gran trabajo, pero cada vez menos gente se implica porque al conseguir el colegio pareció que todo había acabado, y no es así” (I. Alonso).

Hortaz, Gizarte Hezitzaile gisa, premiazkoa dugu gure lanbidea bermatuko duen mobilizazioa sortzea; guztion artean, gure eskubideengatik borrokatzea, hain zuzen. Halaber, nahiz eta administrazioaren aurrean gure lana defendatzen duen eskola bat izan, beharrezkoa dugu gizarte mailan sentsibilizazioa sortzea eta horretarako,

⁷ “No dejan de ver a las asociaciones para discapacitados como un gastador de dinero porque claro, nosotros no generamos más que calor social, no generamos valor de rentabilidad económica”

ezinbestekoa dugu gure indarrak batu eta gure lanbidea garatzeko, norabide berean lan egitea. I. Alonsok planteatutako ikuspegia, interesgarria izateaz gain, motibagarria da:

“Éramos muchos más activos. Nos apuntábamos a todo, todo el rato moviéndonos, haciendo cosas... nosotros teníamos esa inquietud de que la educación no era la carrera en sí, sino que era todo lo que lo rodeaba, los voluntariados, los movimientos sociales... es verdad que el perfil del momento era mucho más motivado y más maduro dentro de lo que es asumir la profesión.” (I. Alonso).

Aurretik esan bezala, ezgaitasuna duten pertsonenganako, momentuaren arabera, ikuspegi desberdinak egon dira. Horrela, denborarekin, hauen gizarteratzea lortzeko helburua duten gero eta erakunde gehiago daude eta hau, aldaketa positiboa dela argi dago. J. F. Renteriak⁸ eta E. Arizagak⁹ dioten bezala, ezgaitasuna duten pertsonen familiek errudun sentitzen ziren eta ondorioz, ez zituzten beraien seme alabak kalera ateratzen; hauen eskubideak era batean zapalduz. Hala ere, denborarekin, ikuspegi hau aldatu dela argi dago, kontzientziazioa piztuz eta hauen duintasunez bizitzeko eskubidea bermatuz.

“todos tenemos esta concienciación pero ya las personas con discapacidad nos empiezan a decir el: no solo tengo derecho a estar en esta sociedad. No tengo solo el derecho a que se me vea y no ocultarme si no, yo ya puedo colaborar en esta sociedad no? Que yo creo que es el siguiente pasito que nos están pidiendo las personas con discapacidad, quieren reivindicar su valor social y creo que a nivel social todavía no hemos asumido eso” (J. F. Renteria).

Ikusten dugunez, ezinbestekoa dugu gizarteko atea zabaltzeko eta beraien ekarpenak aintzat hartzea. E. Arezagak adierazten duen bezala¹⁰, beraien bizitzaren jabeak izateko eskubidea daukate, gu, Gizarte Hezitzaile gisa, beharrezko laguntzak eskaintzen diegun bitartean. Azken batean, lehengo helburua ondo egotea zen bitartean, gaur egungo helburua, beraien gaitasunak garatzea izan behar da, gizartean ahalik eta hoberen integratzeko. Horretarako, erakundeek bideratutako zerbitzuak aldaketak jasan dituzte, egungo beharretara moldatuz:

⁸ *“había una cierta vergüenza social de mostrar a las personas con discapacidad; había sentimiento de culpabilidad por parte de las familias... entonces había personas encerradas en casa, había mucha confusión entre la discapacidad y la enfermedad mental, y se mezclaba todo”*

⁹ *“se veía como una especie de fallo en el entorno familiar, mucha culpabilidad para los padres, el entorno te culpabilizaba”*

¹⁰ *“que ellos puedan tomar decisiones y que nosotros seamos, encontremos y cumplamos las funciones de la figura del allegado. Esto en ética es una figura que es lo que nosotros con los adultos hacemos, somos allegados y tenemos la obligación de velar por sus necesidades, por adaptar sus entornos, que aprendan, que aprendan eh! No que se eduque, que aprendan, que no es lo mismo”*

“los centros de día también han cambiado mucho; ya no son centros asistenciales donde se les tiene se les cuida y se les asea, ahora vamos mas allá. En APNABI hemos pasado de generar talleres pensando que podrían hacer algo para el futuro trabajo... a que ahora halla o eso, o una inclusión social, que muchas veces con esto les vale” (E. Arizaga).

Lanean zehar esan bezala, Gizarte Hezitzaileen profesionalizazioa berria da. L. Velasco¹¹ eta E. Arizagak¹² dioten bezala, hasiera batean, ezgaitasuna duten pertsonekin lan egiteko ez zuten ezer eskatzen, maila baxuko lanpostua baitzen. Hala ere, profesionalizazioaren ondorioz, unibertsitateko gradua sortu zuten eta geroztik, teorikoki, ezgaitasuna duten pertsonekin lan egiten dutenek, formazio espezifiko bat behar dute. Horrela, I. Rodriguezek zera azaltzen du:

“había una formación profesional de educadores especializados pero luego empezaron a ocupar los puestos otros profesionales como pedagogos, psicólogos, maestros...entonces se creó un txitxiburduntxi que todo estaba mezclado... Y ahí plantean el interés de crear un colegio que agrupe a todos” (I. Rodriguez).

Gainera, dokumentu profesionalizatzaileek, orientazioa eskaintzeaz gain, Gizarte Hezitzaileak jasotzen duten trataera barne hartzen dute:

“... el cómo hacer, teniendo en cuenta los aspectos, el cómo debe actuar el profesional teniendo en cuenta sus poderes y responsabilidades. Y también muchas veces el de la vuelta, como es tratado el educador social, que también entra. Y está planteado como nueva propuesta del código deontológico” (I. Rodriguez).

Beraz, etorkizunerako, beharrezkoa da Gizarte Hezitzaileek jasotzen duten trataera kontuan hartzea, eskolaren bitartez bideratzea eta arazoak daudenean, hezitzailea ere, defendatua sentitzea. Benetako profesionalizazioa lortzeko, ezinbestekoa da aktore desberdinen arteko elkarlanaren bitartez, gaitasun eta funtzio zehatz batzuk sortzea. Era berean, unibertsitateko practicumaren bitartez, errealitatean beharko diren gaitasunak sustatzea beharrezkoa da, etorkizuneko gizarte hezitzaileek, lehendabiziko ardurak hartzeko balioko du eta hauen bitartez, gaitasunak garatuko baitira (Saez, 2006). Beharrezkoa da Gizarte Hezitzaileen profesionalizazioa bermatzea, bestela, I. Alonsok adierazten duena¹³ gertatuko da, profil desberdinek hezitzaileen lana bete dezaketela

¹¹ “Yo cuando estudiaba no existía ni Educación Social, ni Integración Social... que igual si que son perfiles más apropiados para este tipo de trabajo. Antes los que entramos éramos psicólogos, de educación especial... ni siquiera se nos pedía el título”

¹² “Antes no se pedía, tu entrabas de educador y con tener el COU ya valía. Se asimilaba como una categoría laboral y como no había ningún perfil ni ninguna formación específica pues valía con el COU”

¹³ “hay la sensación de que con cualquier titulación se puede trabajar de educador y entonces pues, todo esto hay que regularlo, ¿no?”

ponentsatzen jarraituko dela, hain zuzen. Gaur egun, gizartean Gizarte Hezitzaileenganako kontzeptu nahasia dagoela esango nuke eta I. Rodriguezek ere, zera uste du: *“sigue siendo confuso, aunque cada vez suena más. Aun así, creo que la sociedad no sabe colocarlo, es decir, todo lo meten en el mismo saco”*. Azken batean, aurretik aipatu bezala, Gizarte Hezkuntza lanbide bezala garatzeko beharra daukagun guztiok, ezinbestekoa dugu gizartean sentsibilizazio bat sortzea; gure lanerako eskubidea bermatzea eta norabide berean lan eginez, guztiongan kontzientziazioa piztea.

Mundua gero eta konplexu eta lehiakorragoa da. Beraz, etorkizuneko gizarte hezitzaileak, gaur egungoak baino malguagoak izan behar dira. Hau da, gizartea aldakorra den heinean, hauen erantzunak ere, malguak izan behar dira, aukera desberdinen aurrean malgutasuna erakutsiz eta gizarteratzea sustatuz. Hausnarketa jarraitua egin behar da, egoera berriei erantzun eraginkorrenak bilatzeko asmoz. Edukiak behin eta berriz aldatzen direnez, testuinguruak birsortu behar dira; beraz, etorkizuneko gizarte hezitzaileak formatzeko, ezinbestekoa da momentuko egoeran oinarritzea (Saez, 2006). Gainera, arlo ez formaletan jasandako izugarritzko igoeragatik (denbora libre, adin nagusia, haurtzarora, hirugarren hadina, garapen komunitarioa ...), Gizarte Hezkuntza gero eta zabalagoa eta konplexuagoa da (Fernandez et alii, 2007). Gainera, pertsonekin lan egiten dugun heinean, garrantzitsua da gure burua ere, osasuntsu mantentzea eta horretarako, profesional hauek zera eskatzen dute:

“es un trabajo que a nivel psicológico mina mucho, entonces, creo que haría falta descansos o montarlo de alguna manera para que pudiera uno recobrar fuerzas, motivación... porque es necesario.” (L. Velasco)

“creo que estos profesionales necesitan preparación psicológica, ir a aprender con un psicólogo, tratarte tu mismo porque, si que es verdad que por lo menos con el autismo, trabajamos mucho con las emociones, te cuestionas... y una de dos, o tienes claras las cosas o te mina mucho” (E. Arizaga)

“es que ya son personas, personas con caras, con vidas... al final el desarrollo de tu trabajo es lo que hace que mejore o empeore su calidad de vida y esto al final te absorbe. Sobre todo mina psicológicamente”. (J. F. Renteria)

Elkarrizketetan ikusten den bezala, Gizarte Hezitzaileak diren guztiek, psikologikoki babesa behar dugula eskatzen dute, pertsonekin lan egiten dugunez, egoerek, zeharo eragiten gaituztelako. Honetaz gain, profesional desberdinen arteko lana bideratu behar dela eskatzen dute: *“ningún trabajo de este tipo se puede hacer solo, tenemos que estar en coordinación con todos los profesionales”* (J. F. Renteria). Hau da, nahiz eta profesional bakoitzak bere tokia eduki, ezinbestekoa da hauen arteko

elkarlanaren bitartez, gure lana garatzea eta guztion artean, jarritako helburuak lortzea. Azken batean, taldean lan egiteak, dimentsio berezi bat lortzea suposatzen du, partekatzea ezinbestekoa delako eta guztien arteko formazioa eraginkorragoa delako (Fernandez et alii, 2007).

Lan akademikoen eskasiak eraginda, Gizarte Hezkuntzak, oinarri teoriko hauek, beste diziplina zientifiko (esaterako psikologia) batzuetatik atera behar ditu eta honek, gure figura nahasten du; behin eta berriz esan bezala, gizarte errekonozimendua lortzeko beharra areagotuz. Gainera, esku hartze eredu desberdinek (izaera terapeutiko eta psikologikoa); marko metodologiko eskasak (errealitatearekin kontraste gutxi) eta kontrastatutako esperientzia gutxi egoteak, profesionalizazioa ahultzen du. 1992. urtetik 2007. urtera Euskal Herriko Unibertsitatean 34 tesi aurkeztu dira eta hauetariko bi soilik erabilgarriak dira (Fernandez et alii, 2007). Hortaz, ikerkuntza behar handia daukagu, oinarri zehatzak lortzeko eta ondorioz, benetako autonomia profesionala bermatzeko. Era berean, ezinbestekoa da unibertsitatea eta sektore profesionalak garapen paraleloa izatea, horrela, gizarteko agente desberdinekin lan eginez, gure lana modu egoki batean bideratuko baitugu. Arazo hezitzaileak detektatzeko, begirada errealitate profesionalean finkatu behar dugu, ikerkuntza, formakuntzarako aukera berri bat bezala ulertuz. Beraz, unibertsitate eta arlo profesionalaren arteko talde lana hedatu eta indartu behar dugu, ikerketa talde heterogeneoak sortuz, mekanismo eta estruktura zehatzak eratuz eta Gizarte Hezkuntzak duen garrantzia nabarmenduz. Ahalik eta eraginkortasun handiena lortzeko, premiazkoa da jakintza praktikoetan oinarritutako esperientzia propioetatik abiatutako formaziozko modalitateak eskaintzea. Era berean, I. Alonsok hurrengokoa adierazten du:

“el haber dado la formación de los educadores a la universidad ha perdido la tradición que venía que era una formación desde los educadores, desde la realidad. La universidad le ha dado una importancia a la profesión pero claro, ahora el reto esta en que la universidad no se separe de la realidad. Hace quince años se podía permitir la sociedad que hubiera un profesor de universidad que diera educación social sin saber nada o solo a nivel teórico. Pero ahora nadie se imagina una facultad de medicina donde los profesores no sean médicos... y aquí sí; aquí los formadores de educadores no tienen que ser educadores. Es importante formar educadores mediante educadores desde una base real” (I. Alonso).

Azken batean, unibertsitatea errealitatetik urrun egonez gero, barneratutako ezagutzek, errealitatearekiko daukaten urruntasunagatik, legitimitatea galtzen dute eta jasotako formazioa, teoria hutsean geratzen da (Saez, 2006).

Ildo beretik jarraituz, esan, formakuntza, prozesu profesionalizatzaile eta garapen profesionalarekin lotuta egoteaz gain, hausnarketa parte hartzaile, integratzaile, interprofesional eta teoriko-praktiko batetik bideratu behar dela. Hala ere, 2007. urteko egoerak, formakuntza errealitatek aldentzen zela erakusten digu: alde batetik, formakuntza ezagutza kontzeptualak helaraztean oinarritzen da; bestetik, prozesu formatzaile asko, errealitateko praktiketatik oso aldenduta daude eta azkenik, erakundeen beharretatik urrun dauden prozesu formatzaileak bideratzen dira, guztia, modu teoriko batean irakatsiz. Honen ondorioz, formakuntzak garapen profesional, instituzional eta komunitarioekin erlaziorik ez zeukala esan daiteke. Hasierako formazioa ikuspegi akademiko orokor batetik eratu da, errealitatek urrun dagoena eta ondorioz, lan profesional eta bizipenetan oinarritutako ezagutza praktikoaetik aldenduta (Fernandez et alii, 2007). Hala ere, gaur egun, unibertsitatea eta lan mundua gero eta gertuago daudela nabarmendu behar dugu, unibertsitatean Goi Mailako Hezkuntzaren Europar Esparrua sortu denetik, errealitatean oinarritutako kasu praktikoak ebatzen dira eta. Gainera, Practicum aldi luzeagoak egiten ditugu eta ondorioz, gaur egun, 2007. urteko Gizarte Hezitzaileak baino prestatuago gaudela baieztatu dezakegu; hortaz, unibertsitatearen planteamendua norabide egokian doala esan dezakegu.

Dokumentu profesionalizatzaileen bitartez garrantzia hartu badugu ere, gizarteak gure lana ezagutzen eta baloratzen ez duenaren sentsazioa dago:

“la sociedad no ha llegado a conocer cuál es nuestra labor, la importancia y porque es un servicio necesario para que la sociedad avance y que mi trabajo es de interés público. Hace falta que la sociedad acepte esta profesión y le de la importancia que merece” (I. Alonso).

Hortaz, ezinbestekoa dugu sentsibilizazio eta kontzientziazioa piztea, gizartetik kanpo geratu diren pertsonen eskubideengatik borrokatzen dugu eta gure lanak, gizateria osoari eragiten dio, azken batean, zaurgarritasun egoeran edonor egon daiteke. Beraz, gizartetik, gizartearentzako lan egiteko beharra daukagu eta horretarako, lortutako profesionalizazioaz baliatu behar gara:

“el objetivo es decir: no solo tenemos una formación, una experiencia y un colegio sino que también hemos sido capaces de decir cuales son las competencias que necesita un educador o educadora. El objetivo es guiar, orientar y reivindicar que esta profesión debe tener su sitio en la sociedad” (I. Alonso).

Errealitatea oso konplexua da eta ondorioz, gure begirada ere, konplexua izan behar da. Diziplinen arteko mugak gainditzeko beharra daukagu, ikuspuntu

interdiziplinar baten bitartez, konplexua den gizarteko bizitza kalitatea hobetzeko helburua izanik. Azken batean, lanbide honetan, ez dago gestionatzeko, antolatzeko, garatzeko eta ebaluatzeko metodo orokor bat; kasu bakoitza pertsonalizatu beharra dago eta horretarako, ezinbestekoa da jasotako formazioaren abiapuntua errealitatean kokatzea (Fernandez et alii, 2007). I. Alonsok adierazten duen bezala¹⁴, hezkuntza aldaketarako baliabide paregabea da; hala ere, eraginkorra izateko, ezinbestekoa da gure ikuspuntua zabaltzea, metodologia berriak sortzea eta errealitatean oinarritutako formakuntza jasotzea. Aurretik esan bezala, psikologikoki eragiten duen lanbidea da eta horregatik, gure burua osasuntsu mantendu beharra daukagu, motibazioa piztuz eta egunero berrikuntzetan pentsatuz. Honekin bukatzeko, adierazi, L. Velasco, 28 urteren ostean adierazten duena, oso interesgarri eta motibagarria dela:

“siento que sigo súper motivada después de 28 años y eso ya es mucho decir. Estoy motivada primeramente porque trabajo con personas y a mí eso ya me motiva. Luego aparte, sigo buscándome retos, sigo viendo las necesidades y sigo rompiéndome la cabeza para ir cubriéndolas.”(L. Velasco).

6. ONDORIOAK

Gizarte Hezitzaile bezala, ezinbestekoa dugu gure profila zehaztea. Hau da, aztertutakoaren arabera, gizartean, gure lanbidearen gaineko ideia nahasiak daude eta askotan, gure profila kolokan jartzen da. Beraz, profesional gisa, garrantzitsua da lanbidearen sorkuntzan zegoen mobilizazioa berpiztea, Gizarte Hezitzaileen elkargoa dagoenetik, guztia egina dagoela dirudi eta lanbide honetako profesionalok, jarrera pasiboa hartu ohi dugu.

Gizarte Hezitzaileen eskubideen aldeko borroka bat bideratu behar dugu, gure profila zehazteko beharrezko mobilizazioa sortuz. Era berean, gizartearen sentsibilizazioa sustatu behar dugu, errekonozimendua lortzeko, zaurgarritasun egoeran dauden pertsonen gain, gainontzeko guztien kontzientziazioa piztu behar baita. Horretarako, aurretik aipatutako mobilizazioa tresna paregabea da, kontzientziazio kanpainen bitartez, gure profila zehazteaz gain, merezi dugun onarpena lortu dezakegu

¹⁴ “ la educación es compleja, que tiene que estar interrelacionada y que el mundo profesional y el académico tienen que ir muy unidos y en el cual cada ámbito es muy importante”

eta. Halaber, formakuntzari dagokionez, esan, errealitatetik gero eta hurbilago dagoela eta norabide honetan jarraitu behar dugula: kasu praktikoak ebatziz, Modulu Diziplinarteko Jarduerak eginez eta Practicum aldiak aprobetxatuz, hain zuzen.

Errekonozimendua lortzeko sentsibilizazioa lortu behar dugu, gizarteak gure lanbidea ezagutu eta porturatzen duguna ulertu behar du eta horretarako, mobilizazioa behar dugu. Horrela, errekonozimendua lortuz, ezgaitasuna duten pertsonen kolektiboaz gain, beste arloetan ere, esku hartu dezakegu, zaurgarritasun egoeran dauden pertsonen bitzita kalitatea hobetuz. Hortaz, Gizarte Hezitzaileon etorkizun iraunkorra lortzeko, ezinbestekoa dugu gure indarrak batu eta norabide berean lan egitea.

7. BIBLIOGRAFIA

Alvarez-Uria, F. (1996). La configuración del campo de la infancia anormal. De la genealogía foucaultiana y de su aplicación a las instituciones de educación especial. In K. Barry (Kmp.), *Interpretación de la discapacidad. Teoría e historia de la educación especial*, 91-122. Bartzelona: Ediciones Pomares & Corredor.

Darreche, L. eta Zenitagoia, E. (2008). *Hezkuntza Bereziaren oinarri pedagogikoak*, Bilbo: UEU.

Dávila, P., Uribe-Etxebarria, A. eta Zabaleta, I. (1991). La protección infantil y los tribunales tutelares de menores en el País Vasco. *Historia de la educación: Revista interuniversitaria*, 10, 227-252. Ikusgarri: http://campus.usal.es/~revistas_trabajo/index.php/0212-0267/article/viewFile/6920/6901 (2014/02/13)

Fernandez, I., Otaño, J., Arandia, M., Alonso, J. Aguirre, N., Remiro, A., Beloki, N., eta Etxebarria, A. (2007). La aventura de investigar juntos. una experiencia llena de futuro. Txosten aurkeztua *5ª congreso estatal educadores sociales: la profesionalización: recorridos y retratos de una profesión*, Toledo. Ikusgarri: <http://www.ceespv.org/eusk/pdf/infancia/ComunicacionCongresoEducacionSoci alToledo.pdf> (2014/01/16)

Palacios, A. eta Romañach, J. (2007). *El Modelo De La Diversidad : La Bioética y Los Derechos Humanos Como Herramientas Para Alcanzar La Plena Dignidad En La Diversidad Funcional*. La Coruña: Diversitas.

Palacios, A. eta Romañach, J. (2008). El modelo de la diversidad: una nueva visión de la bioética desde la perspectiva de las personas con diversidad funcional (Discapacidad). *Intersticios: Revista Sociológica de Pensamiento Crítico*, 2(2), 37-47. Ikusgarri: <http://www.intersticios.es/article/view/2712> (2014/01/16)

Romañach, J. (2008). *Bioética al otro lado del espejo*. Santiago de Compostela: Diversitas.

Sáez Carreras, J. (2005). La profesionalización de los educadores sociales: construcción de un modelo teórico para su estudio. *Revista de Educación*, 336, 129-139. Ikusgarri: http://www.revistaeducacion.mepsyd.es/re336/re336_08.pdf (2014/01/12)

Sáez Carreras, J. (2006). Funciones y competencias en el grado de educación social desde la lógica profesional. Txosten aurkeztua *El títol de grau en Educació Social Jornades d'estudi i debat*, Islas Baleares. Ikusgarri: http://www.uibcongres.org/imgdb/archivo_doc2052.pdf (2014/01/08)